


IRITZIAK • IRTIZIAK • IRTIZIAK •



PAULO ZANNI (ITALIAN IGOR-EN LAGUNTZAILEA)

Hau ikaragarria izan da. Igorrekin momentu zailak eta onak bizi izan ditut. Anaia da niretzat. Une gogorrenak emaitzak lortzen ez direnean izan ohi dira baina hau ikaragarria izan da. Datorren urtean, Cofidis-en taldeburu izango da eta aurrerapausu bat izango dela uste dut.




FERMIN ARAMENDI (ETBKO ESATARIA)

Denontzat izan da albiste ikaragarri pozgarria, zaletu nahi ez zaletu ororentzat. Espainiako taldean beste bat zuen aurretik eta hori hala izan bazen ere, ihesaldi ona harrapatu zuen. Dohaia beti erakutsi ditu egun bakarreko lasterketarako. Iaz eman zituen lehen erakustaldiak, aurtengoak ametsa borobildu du.

ASTARLOA TXAPELDUN

Munduko txapeldun izateak bizitza aldatu diola argi dago. Oporrak bertan behera utzi behar izan ditu dauzkan konpromesu guztiei erantzuteko. Horrela ba, urriaren 22an Ermura etorri zen herriak pres-tatu omenaldian egoteko. Eguerdieko 13:00etan udaletxeko pleno aretoa kazetariz bete zen Igorren hitzak entzuteko. Arratsaldeko 19:00etan, Antxon Ormaetxea aholkularia ondoan zuela, Ermuko kaleetan barrena ibili zen kotxe deskapotablean, ermuarren zorion eta poz ohiuak entzuten zituen bitartean. 19:45ean udaletxeko sarrera jendez lepo zegoen Igorren zain. Carlos Totorika alkateak ohorezko makila eman zion eta Igorrek udaletxeko liburuan sinatu ondoren bertako balkoitik herriar guztiei agurra eskaini zien. Ondoren, jendez gainezka zeuden kaleetan barrena plazaraino hurbildu zen txapeduna, jaialdiari amaiera emateko.

OMENALDIA ERMUAN



QUETZAL

*Opari eta
jantzidenda
Zure gustokoa izan dadila!*

Goienkale kalea
943 17 00 65

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



Izelaieta 23
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14